



MASKURIKO ZUNDA DUEN PAZIENTEA
PORTADOR DE SONDA VESICAL

Maskuriko zunda bat jarri dizugu.

Gernua zure maskuritik drainadura-poltsa batera eramaten duen hodi bat da. Zundaren puntan dagoen baloi batek zundari finko eusten dio maskuriaren barruan.

Aholku hauek kontuan hartzen badituzu, hobeto zainduko duzu zunda, baita zeure burua ere.

Irakurri, eta, zalantzarik baduzu, hitz egin erizainarekin edo medikuarekin. Ondoren, etxera joatean, jarri arreta berezia jarraibide hauei:

- Garbitu eskuak beti maskuriko zunda manipulatu aurretik eta ondoren.
- Garbitu xaboi-urez, egunean behin edo bitan, zunda inguruko zona (zakila, prepuzioa jaitsita). Horrek narradura eta infekzioa saihesten laguntzen du.
- Ez egin tira indarrez zundatik sekula.
- Gernua behar bezala drainatzeko, begiratu, sarri, hodiak tolesturarik edo izurrik ez duela.
- Eduki drainadura-poltsa zunda baino beheago beti. Gogoratu gernua ez dela sekula gorantz joango, grabitate-indarraren kontra.
- Gernu-poltsa aldatu behar duzun bakoitzean, egin azkar eta kontuan hartuta poltsaren eta zundaren muturrek ez dutela ukitu behar inguruko ezer.
- Maskuriko zunda daramaten pertsona guztiek gernu-infekzioak izateko arriskua dute. Jarri harremanetan medikuarekin sintoma hauetakoren bat sentitzen baduzu: mina bizkarraren edo sabelaren beheko aldean; gernu uherra; odola gernuan; hotzikarak edo sukarra; material hareatsua (jalkina) gernuan.
- Gernu-poltsa txikiagoak erabili behar dituzu — hankara lotzen dira eta ez dira nabaritzen— edozer jarduera egiteko.

Gernu-poltsa handiak erabili behar dituzu gauez.

Se le ha colocado una sonda vesical.

Se trata de un tubo que vacía la orina desde su vejiga a una bolsa de drenaje. Un balón situado en la punta de la sonda, la mantiene fija dentro de la vejiga.

Tener en cuenta los siguientes consejos, le ayudará a cuidar mejor de ella, y por lo tanto, de usted mismo.

Léalos, y si tiene alguna duda, hable con su enfermera/o o su médico. Después, cuando se vaya a casa, ponga especial interés en seguir las pautas aquí indicadas:

- Lávese las manos, siempre antes y después de manipular la sonda vesical.
- Lave la zona que rodea a la sonda (el pene, bajando el prepucio), con agua y jabón, una o dos veces al día. Esto ayudará a prevenir la irritación e infección.
- No tire fuertemente de la sonda por ningún motivo.
- Mantenga un buen drenaje de la orina, controlando, con frecuencia, que el tubo no presenta acodaduras ni pliegues.
- Mantenga siempre la bolsa de drenaje mas baja que la sonda, recuerde que la orina no irá hacia arriba contra la fuerza de la gravedad.
- Cada vez que tenga que cambiar la bolsa de orina, hágalo rápidamente, y teniendo cuidado de que los extremos de la bolsa y de la sonda no toquen nada de lo que haya alrededor.
- Todas las personal que llevan una sonda vesical corren el riesgo de presentar infecciones urinarias. Consulte con su medico si observa alguno de estos síntomas: dolor en la región inferior de la espalda o vientre, orina turbia, orina con sangre, escalofríos o fiebre, material arenoso (sedimento) en la orina.
- Utilizara bolsas de orina mas pequeñas que van sujetas a su pierna y no se nota, con las que podrá realizar cualquier actividad.

Utilizara bolsas de orina grandes durante la noche.